



Nonguayaz taldearen funky-rock doinuak Isla Plazan.– Nonguayaz taldearen eskutik, funky eta rock doinuak izan zituzten zozagarri herritarrek larunbatean Zumaburu auzoan. Kultur Kale Zikloaren programaren baitan, hamarnaka herritar hurbildu ziren seikotearen jarduna ikustera. Oarsoaldea eta Donostialdeatik etorritako seikoteak emandako kontzertuan, doinu alaiak izan ziren batez ere protagonista eta lasarteoriatarrek gogotik dantzan egiteko aukera izan zuten. 2008. urtean sortu zen musika taldea eta bi diska ateratu dituzte sei urteko ibilbidean, hastapenetako maketa bat eta "Koloretako Mundua" izeneko diskoa. Azken lan hau aurkezteko martxoan hasitako giraren amaierako kontzertua izan zen larunbat iluntzean eman zutena eta Phil Javi gitarra-jolearentzat berezia izan zen asteburuko kontzertua, taldearekin azkeneko larunbatean oholtzaratu zelako. Bestalde, herriko musikazaleek, kasu honetan metalaren maitaleek, datorren larunbatean Parapeta-sonik IV. jaialdian dute zita. Parapetoan antolatuta duten kontzertu sortan rock, trash metal, hardcore eta hainbat estiloetako musika-taldek joko dute.

3 POLITIKA

PSE-EEEN eskaria Udalari etxebizitzaren plan bat prestatzeko

Etxebizitzari buruzko mozio bat aurkeztuko du PSE-EEK biharko Udalbatzarrean. Eskaria nagusi bat egingo dio udal gobernuari: etxebizitzaren plan publiko bat prestatzeko. Jesus Zaballoz sozialistaren ustez, gobernuak "desegin" egin du udalaren etxebizitzaz zerbitzua aurtengo legealdian.

4 UDA

Herriko gaztetxoek milaka abentura bizi dituzte Txokoetan

Oporraldiak amaitu dira eta aurki haur eta gazteak egunerokotasunera bueltatuko dira. Baina uztaila eta abuztuan oportetara joan ez direnek, herriaren Udako Txokoetan gozatzeko aukera izan dute. Jokoa, irteerak, desfileak, dantzak... Denetarik izan dute aukeran.



5 EUSKARA

Euskaltegiaren euskara ikasteko aukera, beken bidez

Udaleko eta euskaltegiak ordezkariek osteguneko prentsaurrekoan zehaztu zutenek, herriko euskaltegiaren matrakulazioaren diren ikasleek "matrikula prentzioaren %85 arteko beka" jaso dezakete Udaltetik: "Ikasleek aukera oso ona daukate euskara ia-ia dohanik ikasteko".



muntteri
euskaltegia

aek-k hitza ematen dizu euskara ikasi eta euskaraz jakingo dizula

ikasitako euskara eman izena **aek-n**

- Euskalduntzeko maila guztiak. **AUTOIKASKUNTZA**
- 100 orduko klaseak, uztaila-iraila
- Hizkuntza perfilak 1-2-3 (EGA) • Euskara agiriak

Geltoki kalea 17, behea • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 372863 lasarte@aeo.org
www.muntteri.blogspot.com.es



MERKATARITZA

Manttangorri doan Aterpearekin

Gaurtik aurrera 5 eurotik gorako erosketen truke, Manttangorri bidaia doan

Aterpeko denda eta tabernetan 5 euro baino gehiago erosketak egiteagatik, Manttangorri bidaia doan eskuratu ditzakete herritarrek. Otsailen 15 egunez abian izan zen kanpaina berriz ere martxan jartzea erabaki dute udalak eta Aterpeak elkarlanean. Kasu honetan astelehenean hasi eta abenduaren 31 bitartean luzatuko da.

TXINTXARRI

Aterpea eta udalaren elkarlanari esker herritarrek elkartekoak diren taberna zein dendetan 5 eurotik gorako erosketak egitekoan Manttangorriko bidaia doan jasoko dituzte opari.

Kanpaina bigarren aldiz martxan jartzea erabaki dute herritarren artean herriko merkataritza sustatzeko eta bide batez, Manttangorriren erabilera herritarren artean zabaltzeko. Astelehenean jarriko da martxan eta abenduaren 31 bitartean luzatuko

da. Ramon Ormazabal Aterpearen izenean azaldu zuten aurkezpenen lehenengo esperientzia ona izan zela "baina motza". Horregatik "kanpainari denbora luzea eman nahi izan diogu, aurrekoan herritar askok berandu izan zuten honen berri eta pena izan zen".

Ramonek azaldu zuenez, "gure dendetan erosketak egitekoan, erabilitako Manttangorri txartela eman eta 0,60 zentimoak dirutan itzuliko ditugu, doan aterako zaie bidaia". Beti ere, erosketa bakoitzeko txartel baten balioa emango dela azpima-



Okendun egin zuten udal eta Aterpeak ordezkariek kanpainaren aurkezpena Okendun.

rriat nahi izan zuten. Pablo Barrio alkateak herria dinamizatzeke ekimen bat gehiago dela esan zuten, "herri bizi bat

nahi dugu eta horretarako herriko denda eta tabernetan kontsumitzea sustatu behar dugu". Manttangorri zerbitzua

ere erdigunetik urruti dauden auzoetako bizilagunak erdigunera gerturatzeko dagoela aipatu zuten.

Hiri-seinale berriak



Erdiguneko kaleetan jarri dira hiri-seinale berriak.

Udalerrira gerturatzeko, udalak 21 hiri-seinale berri jarri ditu hiri-guneko hainbat lekutan.

Hautetako batzuk errepideen nahiz inguruko udalerrien noranzkoak adierazten dituzte eta beste batzuk berriz, udal zerbitzuak non dauden adierazten dute.

2004. urtean Merkataritza Indartzeko Plan Berezia egin zuten udalak eta honetan udale-

rrian panel informatiboak jartzearen garrantzia azpimarratzen zen baita merkataritza sustatzeko hiri-seinaleen eragin baikorra. Bestalde, azken urteetan egindako hirigintza esku-hartzeak udalerriko hiri-seinaleak berritu eta gehitzeko beharra agerian utzi dute.

Udalak jakitera eman duenez, jarritako materialaren kostua 19.301,73 eurokoa izan da eta hiri-seinale guztiak jartzeko lanak udal brigadak egin ditu.

Euskaltegi zaharra egokitzeko eskaera

Euskaltegi zaharra autonomo eta ekintzaileentzat egokitu, berritu eta hornitzeko proiektu bat garatzea, bi hilabeteko epean. Hori eskatuko dio EAJ Udalari, moztio bidez, bihar egingo den Udalbatzarrean.

Ganbo kaleko Igo zenbakian dago kokatuta euskaltegi zaharra. EAJren aburuz, "330 metro karratu baino gehiago espazioa, bulegoak eta ekipamendua partekatzeke egokia dena" eskaini dezake Udalak bertan, sektore ezberdinetako profesionalak eta ekintzaileak erabili ahal izan dezaten.

Proiektua prestatzeaz gain, EAJk eskatuko dio Udalari harenanetan jartzeko eta landiketza hitzarmenak bideratzen hasteko lanbide heziketako eskolekin eta unibertsitateekin, ikasketak amaitzeaz dituzten ikasleek aukera izan dezaten



EAJk eskatuko du euskaltegi zaharra enplegua sustatzeko erabiltzeko.

lan munduan "lehen urratsak ematen" hasteko.

Langabeziari aurre egin

EAJko Estixu Alkortak nabarmendu du ohar bidez Lasarte-Oria dela bailaran langabezia tasa "altuena" duen herria; use du "ezinbestekoa" dela "bailara zein udal mailako garapen ekonomikoari bultzada emateko" proiektuak martxan jartzea.

Euskaltegi zaharra coworking erabiliz kudeatzea proposatzen du Alkortak: "Coworking formulak ahalbidetzen du profila desberdinetako sortzaile eta ekintzaileek espazio bakar batean lan egiteko aukera izatea. Benetan egokia izan daiteke erude hori ideiak, proposamenak eta negoziagarritzeko, eta elkarlana sustatzeko".

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko irizti-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttatum Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legezko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Eredakzioa:

Nerea Espagne, Maider
Azurmendi, Jon Albusa E-
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Antola

publizitatea@ttatum.com

administrazioa@ttatum.com

Laguntzaileak:

Urtzi Murrino, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Maialu Anuti, Aier
Odriozola, Jone M. Hernandez,
Jesux Arretxe, Palao Argitarte, Edo
Galarraga

Informaticoak:

Xabier Arnadaz

POLITIKA

PSE-EEren mozioa bihar

Udal gobernuari eskatuko dio etxebizitzaren plan publiko bat prestatzeko

Etxebizitzari buruzko mozio bat aurkeztuko du PSE-EEK biharko Udalbatzarrean. Bi eskaera nagusi egingo dizkio udal gobernuari: etxebizitzaren plan publiko bat prestatzeko, eta datorren urteko aurrekontu orokorretan plana garatzeko beharrezkoa den diru kopurua sartzeko. Talde sozialistaren bozerramale Jesus Zaballosek, udal gobernuak "desegin" egin du udalaren etxebizitza zerbitzua, aurtengo legealdian.



Irudian, Lasarte-Oriako PSE-EEK ordezkaririk Jesus Zaballos.

egin duela etxebizitzaren udal zerbitzua: "Aurretearen eta estuasiun ekonomikoaren aitzakia erabilita, udal gobernuak baztertu egin ditu hainbat herritar; ez die aukerarik eman etxebizitza batean sartzeko eskaera egiteko".

PSE-EEK egindako lana

"Hainbat proposamen plazaratu ditu PSE-EEK legealdi honetan etxebizitzari dagokionez, baina Bilduk, EAJk eta LOHPek trabak besterik ez dituzte jarri", esan zuen Zaballosek. Gaur egun erabili gabe dauden loka-

lak etxebizitza bihurtzeko ordenantzan aldaketak egitea eta udalaren diren etxebizitza hutsak alokairuan jarzteko (aurteko aurrekontuetan zuzenketa egitea proposatuz, diru gehiago bideratzeko zeregin horretara) izan dira urteko talde sozialistak mahai gainean jarri dituen proposamenetako batzuk.

"Neurri horiek aurkeztekin onura gehien Lasarte-Oriako herritarrek eskuratzeko dute, ez PSE-EEK. Bildu, EAJ eta LOHP, ordea, ez dira horretaz jabetzen", azpimarratu zuen PSE-ko buruak.

KULTURA

Alboka izena emateko aukera

Herriko Alboka Abesbatzak 2014-2015 ikasturte berriaren entseguak hasiko ditu irailaren 8an. Astelehene eta ostegun guztietan 20:00etatik 21:30etara entsaizuetan dute abesbatzako kideek Arantzazuoko Amaren Eliza azpiko lokalaren. Entsegu hasierarekin batera, interesa duten herritarrek aukera dute honetan izena emateko.

Izena ematea irekia da 14-55 urte bitartekoentzat eta izena eman aurretik, entsegu bat ikustera gerturatzeko gonbidatzen dituzte herritarrik.

Informazio gehiago jasotzeko info@albokaabesbatza.com helbidean edo 688 643 403 (Jon) edo 690 059 591 (Kizkitza) zenbakietara deitu daiteke.

KULTURA

Musika eskolan izena emateko aukera

Udal musika eskolan izena emateko aukera dago irailaren 1etik 12ra bitartean. Jakitera eman dutenez, hainbat plaza libre daude Musika Hizkuntza eta Instrumentuetan. Izena ematea Manuel Lekuona kulturetxean egin behar da goizeko 9:00etatik 13:30etara.

HEZKUNTZA

EPA-HHIn matrikulatzeko epea zabalik dago

Zabalik dago EPA-HHIn izena emateko epea, joan den asteko ostegunetik. Graduata atera edo Lanbide Heziketako goi mailako sarbide frogak prestatu nahi dituzten matrikulatu daitezke, Lasarteko zentroan.

Soilik tailerrak (Nutrizioa, Informatika, Ingeles, Artea...) egin nahi dituztenek berriz, gaurtik aurrera matrikulatu daitezke, Lasarteko zentroan baita ere.

Ordutegiak honakoak dira: 10etatik 13etara goizean, astelehenetik ostiralera. Arratsaldetan aldez, astelehenetik ostegunera zabalduko dute, 16etatik 20etara. Bi telefono ere jarri dituzte interesa dutenen eskura: 943376443 eta 943366608.

FESTAK

Guadalupeko ama birjinen jaietan ekingina ugari

Ostiralean hasiko dira Guadalupeko ama birjinen jaiak, eta hori ospatzeko hainbat ekingina antolatu dira. Izena ematea beharrezkoa da horietako batzuetan. Esaterako, ostiraldeko 17:30ean hasiko den tute txapelketarako (Adarra kaleko 4. zenbakian egingo da). 18 urtetik gorakoek hartu dezakete parte; 10 euro ordaindu beharko ditu bikote bakoitzak.

Larunbat arratsaldetan berriz, 16:00etatik aurrera, mus txapelketa egingo da (Adarra kalea, 4). Baldintzak tutean jokatze-ko berdina dira: 18 urtetik gorakoa izatea eta bikote bakoitzak 10 euro ordaintzea.

Gandean karta jokorik ez, bolo txapelketa prestatu dute. 18:30ean hasiko da, Jaizkibel plazan. 18 urte baino gehiago dituztenek parte hartu ahaliko dute. Parte hartzaile bakoitzak hiru euro ordaindu beharko ditu.

GIZARTEA

Lasarte-Oriako Podemos/Ahal Dugu aurkeztu dute

Denera 50 bat lagun bildu ziren Okendo plazan larunbat eguerdian Lasarte-Oriako Podemos/Ahal Dugu zirkulua aurkezteko. Herritarrek inongo lehen kontakutako publikoan, beste-ke beste, ekimen herritar honen oinarri politiko, ekonomiko eta sozialak azaldu zituzten. Mugimendu "partehartzaile" gisa definitzen dute euren burua, jendartearen "ezinegona" erantzuteko jaiago eta herritar guztientzat "ateak irekita" dituen.

Aurkezpena amaituta, iritzi, kezka edota galderak entzuteko aukera izan zen. Sortu berri den alderdikiak bozka kopuru handia lortu zuen herritar Europako hauteskundeetan eta aipatu dutenez, Lasarte-Oriako "zirkulua" erabakiko dute martxoeko udal hauteskundeetarako hautagaizta aurkeztu ala ez.



"Etxebizitza alorrean lan egiteko prest"

EH Bilduk oharra bidali du PSE-EEK egindako adierazpenen harira eta honen kudeaketa-aren kritika egiten du.

EH Bilduren ustez, 2006 urterarte Lasarte-Oriako Udalaren jabetza izan zen Askatasunaren plazan dagoen orubea, PSEren gobernuak aurreko agintaldietan harturiko erabakiek zein tokitan utzi gaituzten isla-zen du. "Garai hartan alkate zen Ana Urchueguiak zenbait eraikuntza enpresek in giniko hitzarmen urbanistiko baten bitartez egun inongo balioak ez duten lurrekin trukatzen zuten. Zehazki Teresategi eta Plazaolan kokatutakoak".

EH Bilduk azaldu duenez, bertan, "Urgelgo eraikuntza enpresak 240 etxebizitza egitea aurreikusita dago eta hauetatik 30 (+ 30 apartakalek) Udalarenak izango dira. Proiektu horretan, Brigiden Komentuak, Askatasuna parkea berria eta orain artean bota ez dituzten zenbait eraikin historiko osaturiko ingurune urbanoan 16 solaruko dome bat eraikiko da".

Gainera, "etxebizitzak lorbea erazteko sustapen



Askatasunaren plazan dagoen orubea mintzatu da EH Bilduk.

publikoa lehenetsi behar zela uste dugu. Babes Ofizialeko Etxebizitzaren, alokairu sozialaren edo ikertu beharrekoak diren beste irtenbide batzuen bitartez. Noski, benetan herritarren beharrei garrantzia emanaz".

EH Bilduk PSEren jardunbidearen atzetik interes ekonomikoak soilik ari direla uste du, "erakunde publiko batek defendatutako beharko litzuzkeen gainontzeko baloreen aurretik" eta orain artean milioi-dun hipoteketan bidez herritagoa zorpetu duen epe motzeko estrategia bat gauzatu duela.

Hau guztia, "gainbehera etorri den estrategia bat izan

da". "Pozez garrira iruditzen zaigu orain PSE herritarren etxebizitza eskariak arduratzea Lasarte-Oriaren historian ez denean kapaz izan arazoz ariren biderik topatzeko".

Etxebizitza plan bat egitea aukera on bat dela dute du EH Bilduk, "hori bai, etxebizitza herritarren oinarriko eskubide moduan ulertuko duen perspektiba batetik lan eta hainbat arlo barnebilduko dituen modu integratuan lan eginez. Beste indar politikoekin batera eztabaida horretan sartzeko eta etxebizitza politika berri batean oinarrituko den plan bat garatzeko prest gaude".

Abuztuan ere milaka abentura

Udako Txokoetako haurrek eguraldiari milaka ekintza burutuz aurre egin diote

Oporraldiak amaitu dira eta aurki haur eta gazteak egunerokotasunerako bueltatuko dira, ikastolara. Baina uztaile eta abuztuan oporretara joan ez direnek, herrian Udako Txokoetan gozatzeko aukera izan dute. Jokaok, irteerak, desfileak, dantzak... denetarik izan dute eta abuztuan gainera, haur eta begiraleek eguraldiari aurpegi ona erakutsi behar izan diote.

TXINTXARRI

Takun KE-k Udalaren laguntzaz antolatzen dituen Udako Txokoetan uztaile eta abuztuan ehunka haur eta gazte izan dira aurtin eta antolatzailek irakurketa positiboa egin dute. Gai desberdinak landu dituzte joko, jolas eta itereen bidez. Gainera, uztailean zehar milaka abentura bizi bazituzten ere, abuztuko txandan ez dira atzera geratu.

Heroiak

Abuztuan zehar "Super heroiak" izan dira nagusi Udako Txokoetan.

Adin tarte bakoitzak bere heroi aukeratu eta haren aniztasuna janzteko aukera izan zuten, bere eskuekin egindako moztarrietan.

Handienek gainera, bere super heroi propioa sortu zuten, Elektriha eta bere jarri-ara, botereak, arropa erabaki zituzten, baita abesti bat sortu ere.

Ekintza desberdinak

Gaiekin lotutako ekintza ugari burutu zituzten haur eta gazteek, jostakiroa saioak ere izan zituzten eta hainbat irteera ere izan dituzte.

Ontzietan Santa Klara uhartera joan ziren; erleek ezia nola egiten duten ikusi zuten; 5 urteik gorakoak bizirik auzoko hainbat zuten Orion; txikiak Txiki Parkean gozatu zuten eta guztiak batera Larraul ezagutu zuten.

Jaizkibel Plaza apaintzen

Bestalde, ekintza berezi batean ere parte hartu zuten



Abuztuan Udako Txokoetako haur eta gazteek jaizkibel plazan dauden muralak prestatu zituzten.

haur eta gazteek. Lasarte-Oriako Udalak eskatuta, mural bereziak prestatu zituzten Jaizkibel plazako etxabeetarako.

Aurki Udalak Sasota auzoko hainbat etxabe erakutsi dituzte eta eremu huts horien erabilera adosteko auzoko bizilagunekin parte-hartze prozesua abiatatu du. Herriarrei hau jakinarazi eta eremua apaintzeko mural batzuk egitea adostu zen.

Udako Txokoetako haurrak izan dira mural hauen marraztu dituztenak.

Muralak ostegunean jarri ziren ikusgai eta hauetan era guztiak "panpinak" daude irudikatuta.

Azken festa

Eta uztaileko txandaren antzerak, azken festa egin zuten ere abuztuan.

Txikienek haien dantzarako trebetasuna erakutsi zien

ten gurasoei, handienek berriz, dantza eta kantua uzartu zituzten eta Elektriha-rena bestia eskaini zieten guztiak.

Baina ez ziren haur eta gazteak dantza egin zuten bakarrak izan. Guraso eta begiraleek ere haien harritxoak jarri baitzuten. Gurasoek "Kafe frantses" eta begiraleek "Agurra" eskaini zituzten.

Azkenik, luntxa ere izan zen guztiarentzat.

Palestinarekin elkartasun ekintzak

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Palestinaren Lagunek azken asteetan ekintzak egin dituzte gurean palestinar herriari elkartasuna adierazteko. Irailerako elkarte desberdinetan bazkariak antolatu dituzte. Bazkari hauekin jasoko den dirua, Gazako UAWC proiektura bideratuko da. Lehenengo igandean egin zuten Buruntz-Azpin.

Taldeak azken asteetan egindako elkarrateak Palestinan eta zehazki Gazan Israelen egindako sarraskiarekin

aurrean, elkartasun ariketak izan direla adierazi dute.

"Hauekin ozenki besarkatu nahi izan dugu gure lagun palestinarren sufrimendua jasanezina, beraien lur gainean bakean bizitzeko azaltzen duten grina, eta egoera zakar honetan munduko komunitateari laguntza eske egindako eskaera. Besarkatu diogun gureak egiten baititugu beraien nahia eta eskaerak giza eskubide eta justizia internazionalen oinarritutakoak eta dagoeneko gehiegitan bortizki urratuak izaten ari direnak".

"Ezinbestekoa da Israelen blokeoa altxatzea eta behar diren materialak sartzen uztea edota berarekin lerrotuta dagoen Egiptoko Rafah-ko pasabidea irekitzea. Ezinezkoa da bestela aurrera egitea".

Laguntza ekonomikoa lortzeko iraileko igandetan abian jarri dituzte elkartasun bazkariak. Irailaren 14ean Arriaskalletan, 21ean Elebeltzen eta 28an Xirimirin. Taldeko kideek, bazkariak antolatu edota bertan parte-hartzerako gonbidatzen dituzte herritarak.



25 lagun bildu ziren atzo Buruntz-Azpin Palestinarekiko elkartasun-bazkarian.

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure proiektuan!

Foto depilazio argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolia- Solomoa ontzutua Solomoa baratxuritan

Ettxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitzak

Txistorra



Basurde burua

Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Euskara ikasteko aukera, beken bitartez

Matrikula-prezioaren %85 arteko beka aukera Udal euskaltegian eta Munterri-AEKn

“Aukera paregabea”. “Euskararen mundurantz bidaia aberasgarria”. Gisa horretako adierazpenak egin zituzten udaltxeko bilera gelan ostegunera. Agerraldia egin zuten Munterri-AEKko zuzendari Olatz Urdranpilletak, Udal euskaltegioko zuzendari Lorendiñe Usarraldeak, Pablo Barrio alkateak eta Boris Nogales Euskara Batzordeko lehendakariak, aurtur herriko bi euskaltegiaren euskara ikasteko dauden aukerak azalduz. Gainera, has-tear den ikasturtera begira herritarrek animatu nahi izan zituzten.

TXINTXARRI

Euskara ikasteko bidaia egiten laguntzeko, beka emango dituzte. Nogales osteguneko prentsaurrekoan zehaztu zenez, herriko euskaltegiaren matrikulatzen diren ikasleek “matrikula prezioaren %85 arteko beka” jaso dezakete Udaletik: “Ikasleek aukera oso ona daukate euskara ikasteko, matrikula ia-ia dohanik aterazteraino”.

Lehenengo ikasturtearekin alderatuta, beken aurrekontua handitu egin du Udalak: 25.000 euro bideratzetik, 45.000 eurora arte. Bestalde, aipatu zuen 2013/2014 ikasturtean 131 beka emanak dituztela.

Euskaltegiaren eskaintza

Herriko bi euskaltegiatiko zuzendariak ezagutzera eman zituzten aurtengo ikasturterako dituzten eskaintzak.

Munterri-AEKko Olatz Urdranpilletak zehaztu zenez, “aukera desberdinak” eskaintzen dituzte: “Klaseak ditugu goizez eta arratsalde; 10 orduko goizetan, astelehenetik ostegunera, eta 8koak arratsaldetan, astelehenetik ostegunera baita ere; maila guztiak lantzen ditugu, 0tik hasita 3.era arte”.

Gainera, autoikaskuntza bitartez ikasi edo hobetu dezakete euskara ikasleek. Hori gutxi balitz, sarean ere kursoak eskainiko dituzte aurtengoa. Informazio gehiago nahi duenak (ordutegia,

prezioak...) AEKK Lasarte-Orian duen egoitzan eskura dezake.

Udal Euskaltegi Lorendiñe Usarralde ere azaldu zuen zein eskaintza prestatu dituzten aurtur. Klaseak astelehenetik ostegunera emango dituzte, 10 ordu gutzira. Bestalde, txandaka lan egiten duten langileek “goizez edo arratsalde” ikasi dezaketela aipatu zuen, “beraiei egokien etortzen zaien tartean”.

Berrikuntza baten berri eman zuen: “Aurtur, hilaren 17a baino lehenengo matrikulatzen direnek aukera edukiko dute 10 kuotatan ordaintzeko matrikula”. Autoikaskuntzarako aukera ere ematen dute. Ikasturte berrira begira informazio gehiago eskuratu nahi duenak, Udal Euskaltegiara jo dezake.

Udal euskaltegiok klaseak irailaren 18an hasiko dira, ekainaren 18ra arte. Munterri-AEKkoak berriz, hilaren 26an. Urdranpilletak nabarmendu zuen “garrantzitsua” dela egun hori baino lehenengo matrikulatzea, “taldeak egiteko”. Usarraldeak zehaztu du irailaren 17a dela matrikulatzeako azken eguna.

Herrian matrikulatzearen onurak

Beste herri batzuekin alderatuta, herritarrek Lasarte-Oriako euskaltegiaren izena ematearen “alde onak” aipatu zituen Usarraldeak: “Etxetik hurbil daude eta trafikoa arazoak dire-



Pablo Barrio alkatea, AEKko Olatz Urdranpilleta, Udal Euskaltegi Lorendiñe Usarralde eta Boris Nogales Euskara zinegotzia.

la eta ikasleek ez dute zertan denbora galdu beste herritarra joaten. Gainera, Donostiarekin alderatuta adibidez, herriko euskaltegiatiko matrikulak merkeagoak dira”.

Usarraldeak eta Urdranpilletak, biek aipatu dute kanpotar diren ikasleentzat herrian integratzeko “tresna garrantzitsua” direla euskaltegiak. “Herrikoak diren ikasleekin harenan jarri eta ohitura herritarrek ezagutzeko oso lagungarriak dira euskaltegiak”, esan zuen Usarraldeak.

Iritzi berekoa da Urdranpilleta: “Laster ospatuko ditugu Euskal Jaia herrian, eta aurtur bat beranduago, Olentzerok... herriaren dinamikan parte hartzeko aukera ematen dute euskaltegiak”.

Bidaitezko gonbita

Azkenik, herritarrek “euskaren mundura bidaitezera” gonbidatu zituen Pablo Barrio alkateak: “Bidaia aberasgarria da oso, aukera oso on bat. Bakoitzak bere abiapuntua izango du, eta baita bere helmuga ere: lanean euskarzaritza, kalean lagunekin hitz egitea...”.



Udaleko eta euskaltegiatiko ordezkariak osteguneko prentsaurrekoan.

Bekak eskuratzeko baldintzak

- Lasarte-Orian errolatuta egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.

- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.

- Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:
1. Euskaltegi ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.

2. Barmetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.

3. Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastarota mota horietako bat egin duten ikasleek kasuan bakarrik).

- Gutxienez %85eko asistentzia eta gutxieneko aprobetxamendua gaitziduta.



Maite Erkizia
ILE-APAINDEGIA
ESTETIKA

ORAIN ...
ENERITZ
ESTETIKA ZERBITZUAN.
ONGI ETORRI GUZTIOI !



Bias de Lezo 5. behea • Tel.: 943 370254 • LASARTE-ORIA

LABURRAK.

Kiroldegian neguko ordutegia

Iraila hastearrekin batera, neguko ordutegiarekin ekin diote lana-ri Lasarte-Oriako Udalaren kirol instalazioek.

Kiroldegia 7:00etatik 22:30era egongo da zabalik astelehenetik ostiralera; larunbatean, 9:00etatik 20:00etara eta igandean, 9:00etatik 13:00etara.

Kirol Gunea berriz, 15:30etik 22:30era zabalduko dute astelehenetik ostiralera; larunbatean, 9:00etatik 20:00etara eta igandean, 9:00etatik 13:00etara.

Astiazaran eta Arluziaga Santa Anan garaile

Uztailaren 30ean, Santa Ana Pala txapelketako finala jokatu eta Xenki Astiazaran eta Iñigo Arluziaga izan ziren irabazleak.



Ikusek ugari hurbildu zen Loidi-Barren pilotalekura finala era hirugarren postuko partidira zirraragarriki ikustera.

Fianlean Benaiz Odriozola-Shanti Martin eta Xenki Astiazaran- Iñigo Arluziaga izan ziren aurrez aurre. Partida oso berdindu izan zen, 27-27 egon ziren. Xenki Astiazaranen lan onari esker Astiazaran-Arluziaga bikoteak 29-35a jarri zuen markagailuan. Gainera, Xenki Astiazaranek finaleko jokalaririk onenaren saria ere lortu zuen.

Aurretik hirugarren postua izan zen jokoan. Xabier Artega eta Beñat Esnaolak 35-32 irabazi zieten Jon Pello Artetxe eta Xabier Etxezarretari. Partida honetan ere azken tantotetan erabaki zen norgehiagoka.

Lehen tantotetan Artega-Esnaola bikoteak errenta atera bazuen ere, Artetxe-Etxezarrete bikoteak ia buelta eman zion partidari 33-32 jarriaz. Baina Artegaek ederki erantzun zuen aurrean eta garaipena eman zion bere bikoteari.

Hau guztiaz gain, Santa Ana Pala txapelketako antolatzaileek Josu Sarasolari omenaldia egin zioten.

Ander Bardaji Realean atezain lanetan

Ander Bardaji herritarak Realaren lehen taldeko jokatu du bigarren atezain bati edo hiru hilabetez. Lasarte-Oriako gazteak aurreneboraldia Realarekin egin zuen eta Sanserekin hasi zuen denboraldia. Baina Rullik atezainaren lesioak Bardaji gazteari aukera eman dio lehen taldearekin lan egin eta esate baterako, Madrilren aurkako partidari aulkian egoteko.

ARETO-FUTBOLA.

Herriko txapelketan izena emateko azken egunak

Ostadar SKT-ren barruan Areto-Futbol saila sortu da. Honek Herriko areto-futbol txapelketara antolatuko du eta Nazional III. mailan zegoen Aldaz H.K. taldea hartu du bere baitan.

Saila lanean dago dagoeneko eta XXXII. Herriko txapelketako taldean izena ematea irerki zuten abuztuaz.

Antolatzaileek azaldu dutenez, txapelketako sistema joan-etorrikoa izango da eta ostean, lehen zortzi taldeek play-off-a jokatu dute. XXIX Mossu oroinemekoari dago-kionez, aurtengo ereduari jarraikiz, kanporaketak partida batera jokatu dira eta hoberekin iritsiko dira finalera.

Izena ematea

Aipatu legez, taldeek abuztuaren 18tik izena emateko aukera izan dute eta epea asteazkenean, irailaren 10ean amaituko da.

Oraindik izena eman ez duten taldeek bi aukera dituzte, batetik Ostadar SKT-ko bulegora hurbildu, Geltoki kalea 25, astelehenik asteazkenean arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara edo ostadar@s@gmail.com helbidean informazioa eskatu.

Antolatzaileek jakitea ematen dutenez, talde kopurua mugatua izango da, eta 18 taldeek izango dute aukera txapelketan parte hartze.

SASKIBALOA.

Ostadarreko taldeak lanean

Lau talde izango dira aurten lehian, bata gizonena

Ostadar SKT-ko saskibalo taldeek lan ederra egin zuten ia zko denboraldian eta arrakasta horiek errepikatzeko asmoarekin hasi da lanean saila. Aurten gainera, herritarren eskaerari erantzunez beste bi talde osatu ditu, bata neskena eta bestea senior gizonena.



Ostadar SKT-ko junior neskek eiz Gipuzkoako txapelketa eskuratu zuten.

TXINTXARRI

Ostadar SKT-k saskibalo talak lau talde aurkeztuko ditu 2014-2015 denboraldian. Herrian zaletasun handia dago eta saskibalo sailak aurten bi talde gehiago osatu ditu. Honela nesken hiru taldearekin batera, errendimendu kadete, partizipaziozko kadete eta errendimenduko junior taldeak, gizoneko bat ere izango da lehian, Gipuzkoako 3. mailan.

"Saskibaloian maila igo-tzen ari gara eta honekin batera neska gehiago ditugu kirol hau egiteko prest", azaldu du Endika Marrahi saskibalo taldeko arduradunak eta honen ondorioz, nesken talde berri sortu dute kadete mailan.

Senior taldea

Honetaz gain, gizoneko senior taldea ere izango da. Marrahi adierazi digunez, "deialdi baten ostean gizoneko senior taldea sortzeko aukera gurela ikusi genuen. Lasarte-Oriako gazte asko daude kirol honetan ibiltzen direnak, baina herrian ez talderik. Gure aurrean ados jarri ondoren taldea osatzea erabaki genuen".

Hirugarren mailako senior mailan lehiatuko da taldea. Lanean ari dira eta lehen partida urriari jokatu dute.

Entrenamenduak

Ostadar SKT-ko saskibalo sailak herritarrek gonbidatu nahi dituzte taldeetan parte hartzera eta honela entrenamendu saioen ordutegia jakinarazi digu.

Kadete eta junior neskek hiru egunetan izango dituzte saioak kiroldegian.

Errendimenduko kadete taldeak astelehena 18:30etik 20:00etara, asteazkena 15:00etatik 16:30era eta ostiraletan 16:00etatik 17:00etara egingo du lan.

Partizipaziozko kadete taldeak astelehena eta asteartean 18:30etik 20:00etara eta ostiraletan 17:00etatik 18:00etara.

Astelehen eta asteartean 18:30etik 20:00etara eta ostiraletan 18:00etan 19:30era entrenamendu talde errendimenduko juniorrek.

Senior mutilek berriz, bi saio egingo dituzte astelehenetan 21:15etik 22:15era eta ostiraletan, 20:30etik 22:15era.

IGERIKETA.

Buruntzaldea IKT lanean hasiko da gaur

Buruntzaldea IKT-ko igeri-lariak gaur arratsaldean hasiko dira lanean izazko emaitzak hobetzeko asmoz. Taldeak adinaren arabera entrenamenduak egiten ditu eta haur, zein gazteen trebatuak lantzen dituzte.

Txikien kasuan, umeen urretako oinarriko ahalmak garatzea eta igeriketa estilonetan hastapena egitea da.

Gaztetxoek berriz, igeriketa estilonen irakaskuntza, entrenamendu formalizatuaren hastapena eta txapelketa eta bere arautegien hastapena eta irakaskuntza egiten dute.

Saioen egin kopurua ere adinaren arabera da, txiki-kienek bi astein dituzte eta gaztetxoek hiru.



Buruntzaldea IKT-ko igeri-lariak izazko emaitzak gaintzeko prest.

Izena ematea

Taldeko arduradunek herriko haur eta gazteak gonbidatu dituzte igeri egitera eta horretarako izena ematea epea irerki du.

www.buruntzaldeaikt.blogspot.com/orrialdean

izena emate formularioa bete egin behar da.

Taldearen edo izena ematearen inguruko informazioa nahi duenak berriz, 696 506 632 telefonora deitu edo beste-la web orriko kontakturako formularioa bete eta bidali dezake.

— Agenda —

Ostirala 12-Igandea 14, Extremadura etxea eta Jaizkibel Plaza



Ama Guadaluperen ohorez jaiak

Ama Guadaluperen eguna dugu gaur, astelehena. egun handia Extremadurako Erkidego eta gure inguruan bizi diren extremadurarrantzako. Hori dela eta, Lasarte-Oriako dagoen Ama Guadalupe Etxeak ekintzak betetako asteburua antolatuta du egun berezi hau ospatzeko. Ekintzez gain, asteburu osoan zehar Extremadurako jaki eta edariak dastatzeko aukera izango da Jaizkibel Plazan.

Ostirala 12

17:30ean, Binakako tute txapelketa, Extremadura etxean.

21:00etan, Bandera goraztea, Extremadura Erkidegoko himnoa abestuz, Extremadura etxean.

22:00etan, Kontzertuak herriko taldeen eskutik:

- The Garax
- The Ruibrabos
- DJ-a

Larunbata 13

10:00etan, Marrakiz eta margolan lehiaketa, 2'K'N okindegian.

10:30ean, Extremadur Meza, Errenterriako "Ecos de Monfragüe" taldeak girotua, Extremadura etxean.

14:00etan, Bazkari herrikoa, Extremadura etxean.

16:30ean, Mus txapelketa irekia, Extremadura etxean.

17:00etan, Haur-jolasak irabazleek saribanaketa, Jaizkibel Plazan.

21:30ean, Etxeko bazkide eta lagun afaria, Extremadura etxean.

00:00etan, Gau-festa "Café Irlandes" taldeak girotua, Jaizkibel plazan.

Igandea 14

03:00etan, Miga dastatzea, Extremadura etxean.

12:30ean, Lasarte-Oriako "Zambra" andaluziar taldearen emanaldia, Jaizkibel plazan.

14:00etan, Bazkari herrikoa, Extremadura etxean.

18:30ean, Emakumeen tzaiko bola-joko txapelketa, Jaizkibel Plazan.

19:30ean, Helduen joko eta lehiaketetako saribanaketa, Jaizkibel Plazan.

20:30etan, Jaien amaiera eta bandera jaistea, Extremadura etxean.

Lasarte-Oria

Musika

PARAPETOA
Larunbata 13,
19:00etatik aurrera
Parapetesonik IV. jaialdia ospatuko da. Rock, trash metal, hardcore... estilotako handibait talde izango dira bertan.



OKENDO PLAZA

Larunbata 20, 19:30ean
Behi Bi Blues taldeak dantza egiteko Rhythm and Blues eta rockabilly abestiak eskainiko ditu.

BASAUNDI PLAZA

Larunbata 27, 19:30ean
Adunia taldeak Kultur Kale zirkloari amaiera emango dio. Doinu zeltiar eta rock-a nahastan dituen abestiak eskainiko ditu. Abuztuan bertan behera geratu zen eguraldi txarra iragarria zegoela eta.

Dantza

OKENDO PLAZA
Ostirala 26, 21:30ean
Kukai Dantza taldeak "Gelajauziak" lana aurkeztuko du. Emanaldiaren protagonista dantza eta kalea dira. Lasarte-Oria dantzan ekimeneko saioa dugu Eusko Jaurlaritzak lagundua. Saio hau uztailaren bertan behera geratu zen eguraldiagatik.

te-Oria dantzan ekimeneko saioa dugu Eusko Jaurlaritzak lagundua. Saio hau uztailaren bertan behera geratu zen eguraldiagatik.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIAN
Irailean zehar
Mundu Bat GKEK antolatuta Carmen Caballero argazkilaria-riaren Kolonbiako egoerari buruzko argazki erakusketa ikusgai.



Usurbil

6. Topa Eszenika

SUTEGI ARETOA
Asteazkena 10, 20:30ean
"Satisfaktion" antzezina eskainiko du Khea Ziater taldeak. Sarrera, 3 euro.
Osteguna 11, 20:30ean
Aldatzen Laguntzen konpainiaren eskutik "Amets zirkoa salgai!" lana. Sarrera, 3 euro.
Ostirala 12, 22:00etan
Hika Teatroatik "Hitzak" lana taularatu du. Sarrera, 6 euro.
Larunbata 13, 22:00etan
Dar Dar produktzioko lagunek "Etzi" lana aurkeztuko dute. Sarrera, 6 euro.

— Herritarren txokoa —

La Esperanza Bizilagun elkartearen eskerra

La Esperanza Bizilagun elkarteak idatzi honen bitartez Karmengo eta San Inazio kiolo jaietan laguntza eman dien gutzietz eskerrak eman nahi dizkie: Oriako kaperako laguntzaileei, Buruntz-Azpi elkarteari, Solano trikitixa taldeari, Itakun K.E.-ri, Edurne Irolandendi, Intza elkarteari, Ostadar Saiarre Kiroi Taldeari, Pilar Catalina soprano eta Gerardo organistari, Patxi Larrañaga Harategiari, Txoko tabernari eta Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria, Festak eta Kiroletako arloari.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru txirrin, bi mugikor, bi pultsera bata urrezkoa, erazatun bat, bi erloju eta belarritakook.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Oria martxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa. Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteok lokalean banatzen dira barazki eta fruitak, garaian garaiakoa eta ekologikoa. Kooperatiba honen proiektua gutxuko dutentzat atek zabalkidizuztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteona@hotmail.com helbidetan.

Eskutitza

GORA XIRIMIRI!

Uztailak 30ean jakin genuen Espainiako Auzitegi Nazionalak 20 euskal herritar kondenatu zituela eta 111 herriko taberna konfiskatzeko erabakia hartu zuela. Eta beste behin ere, gogor salatu nahi dugu, gu epaitzeko inor ez den Euztegi Nazionalak, hartutako erabakia. Erabaki honen bidez, ezker abertzaleak Lasarten, bere jardun politikoa eta kulturala aurrera eramateko dute Xirimiri Elkarte konfiskatu nahi dute.

Gogora ekarri nahi dugu 1936an faxistek eginko lokal eta ondasunen lapurretara, ia 80 urte beranduago Espainiar Estatuak bide berdinarean aldeko hautua egin baitu.

Ezin dugu ahaztu herri ahaleginaren erudia direla herriko tabernak. Milaka herritar baitaude hauen atzetik Euskal Herri osoan. Xirimiri ez da errealtate honetatik aldatzen. Bertan, denok dakigun bezela, hiztaldia eta etzabaidak antolatuta dira, herriko beste elkarteek ere tokia izan dute beraien jarduna aurrera eramateko, militantzia politikoa eta kulturalerako

gune bilakatu da, herri mugimendurako atek irekita mantendu dira... Eta hau da estatuak desagerrarazi nahi duena gure lokalkonfiskatuz.

Zer da estatuak benetan lortu nahi duena sententzia honen bidez? Ezker Abertzalea garaitu duen ideia faltsua indartu nahi du, Ezker Abertzalearen uesteko porrota irudikatuz. Baina kontrako efektua lortuko dute. Herri honen zati bati bere ideiak defendatzea ukatzen zaionean, herri osoa kondenatzen dutelako.

Baina abestiak zioen moduan, oker dabilta. Ezker Abertzalearen oinarriak bere lekua izaten jarraituko baitu Euskal Herriko herri gutzietan, lanean jarraitzeko konpromisoa imoa baitugu, estatuaren ezintasuna agerian utziz.

Bukatzeko, hemendik eskerrak beroenak Lasarteko herritar eta elkarteetara irakutsi diguzen babesagatik, eta elkartasunetik konpromisora eman dizuen jauzi ausartagatik.

GORA ZUEK, GORA XIRIMIRI!

Xirimiri Elkarte

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 tintxarri@tintxarri.info



LASARTE-ORIA
Udal Eskalategia

2014/2015 EUSKARA IKASTAROAK



943 361621
Bulego orduategia: 08:30-19:15



Lasarte-Oria Udal Eskalategia
Beteako kalea Bidea 1
E-48393 Lasarte-Oria (Bizkaia)

- Maila guztiak eta ordutegi zabala. Txandaka aritzeko aukera
- Astelehenetik ostegunera.
- AUTO-**IKASKUNTZA** (mintzamenen taldean)

Azterketetarako prestaketa

- Hizkuntz eskakizunak eta **HABEREN 1, 2 eta 3. maila (EGA)**.
- Titulu homologatuak: Osakidetza, Hezkuntza, Ertzaintza eta Administrazioarako balio dutenak

Ikastaroaren iraupena: Irailaren 18tik ekainaren 18ra arte.
Matrikulaldia: Irailaren 1etik 17ra

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

Gainera, irailaren 1etik 17ra izena ematen baduzu, **10** kuotatan ordaintzeko aukera izango duzu.
Diru-laguntza berriak: % 85!!! Galde ezazu!

Orain, gainera, **BEREZKO ZERBITZU TEKNIKOAK**

telebista eta elektratresnetan



Bideo Lagunak



Bideo Lagunak

Etxekotresna elektrikoetan adituak

Eskaizte gehiago Facebook-ean.
www.facebook.com/BideoLagunakTien21



Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2014-15



%85



BEKA BERRIAK

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea
- Gutxienez % 85eko asistentzia

Kandi Sánchez Jiménez
Udal eskalategia

Bidaia honetan daramadan mailetan opari batzuk badituz, ezagutu ditudan herritarre guztiak, hain zuzen ere. **Gainera, baken sistema berria ezin hobea da.** Ez pentsatu eta hartu euskararen urpekoa.

Ana Jose Minguéz Bazan
Muntteri-AEK eskalategia

Euskara jakitearen hutsunea sumatu dut beti. Egia da henen gaztelaniar hiz egiten, denekin hitz egin dezakezula, baina **hizkuntzaren bidez modu desberdinetan iritsi daiteke jendearengana.** Kulturalrikitoxorra da. Eta nik ere bi hizkuntzetan bitartekari naiz.

ONDO iBiLi!

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org

Udaleko eskalategian: • Telefonoa: 943 361 621
Muntteri-AEK eskalategian: • Telefonoa: 943 372 863

Lasarte-Oria UDALA - AYUNTAMIENTO